

Aldatu faktura elektronikora!

Gure basoak iraunkorrak izaten eta zaintzen lagundu nahi duzu? Zure erantzuna BAI bada, aukera jasangarri bat eskaintzen dizugu gure komunitarioetarako.

Hiru hilean behingo faktura eta informazio ohar hau posta elektronikoz bidali diezazukegu, paper eta tinta kontsumoa murrizteko.

AMVISAn erabaki dugu, aurten, faktura elektronikoa duten gure kontratuen ehuneko nabarmen handitzea. Gaur egun, zifra hori %8 baino ez da, eta, horregatik, **kontra-tuaren titularrak** (edo titularrak baimendutako korrespondentziaren hartzaileak) animatu nahi ditugu zerbitzu horretan alta ematera. Hori egiteko tramitea oso erraza da:

1 Bidali mezu elektronikoa bat amvisa@vitoria-gasteiz.org helbidera, gaian adieraziz: **Fakturazio elektronikoa**ren eskaera.

2 Mezuan jakinarazi faktura posta elektronikoko zein helbidedan jaso nahi den. Zehaztu eskaerak aipatzen duen kontratua edo hornidura puntua (etxeko helbidea).

3 Amaitzeko, NANaren kopia bat erantsi behar da, identifikatzeko.

Eskerrik asko zure laguntzagatik!

COVID-19aren pandemiaren ondorioz, arreta presentziala mantentzen da aurrez ordua eskatuta



Ordua eskatzeko, 945 16 10 00 telefonora deitu edo AMVISAREN webgunean egin daiteke, Arreta presentziala/Aurretzako hitzordua, www.amvisa.org.

Tramite bakoitzerako zer agiri aurkeztu behar den kontsultatu daiteke **Bezeroarentzako informazioa/lazapideak eta gestioak** atalean, eta, zalantzarik izanez gero, kontsultarako telefonoa 945 16 10 00 da.

Ordainketak banku txartelaren bidez baino ez dira onartuko, inoiz ez eskudirutan.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.

Hauxe da helbidea:

info@amvisa-futura.org

Bulego Birtualean sartzeko aukera berriak



æ
izenpe

AMVISAREN Bulego Birtualak, www.amvisa.org webgunean, aukera gehiago eskaintzen dizkie izapideak online egin nahi dituzten pertsona fisiko eta juridikoei.

Pertsona juridikoak identifikatzeko, bide hauetatik sartu daitezke:

Ziurtagiri digitalak: Izenpe, FNMT ziurtagiria.

Pertsona fisikoak, berriz, honela identifikatu daitezke:

Herritarren Udal Txartela (HUT), erabiltzailea eta PINa adieraziz.

Izenperen **Bak ziurtagiri digitala**, NAN/AIZ/Pasaportea eta pasahitza adieraziz.

Izenperen **BakQ ziurtagiri digitala**, NAN/AIZ, pasahitza eta koordinatuak adieraziz.

Beste ziurtagiri digital batzuk: **NAN elektronikoa, FNMT ziurtagiria.**